

KLIMA- ALDAKETAREN AURREKO BARNE-PLANA


DONOSTIAKO UDALA

II. AGIRIA:
EKINTZA PLANA

2021eko iraila



DONOSTIA
SAN SEBASTIÁN
Osasuna eta Ingurumena
Salud y Medio Ambiente



Lan hau **ADOS Sostenibilidad y Clima S.L.** sozietatearen laguntza teknikoarekin egin da, **LEBER Planificación e Ingeniería S.A.** sozietatearekin lankidetzan.

EDUKIEN AURKIBIDEA

1.SARRERA ETA TESTUINGURUA.....	5
1.1Udalaren ibilbidea eta konpromisoa klima-aldaketaren aurrean.....	5
2.PROIEKTUAREN HELBURUAK ETA IRISMENA.....	6
2.1Klima-aldaketaren aurreko Barne-planaren helburuak.....	6
2.2Klima-aldaketaren aurreko Barne-planaren irismena.....	6
3.EKINTZA PLANA.....	8
3.1Lan-arloen aurkezpena.....	8
3.2Ekintza Planaren eskema.....	10
4.MUGIKORTASUNAREN ARLOKO EKINTZAK.....	12
5.ENERGIAREN ARLOKO EKINTZAK.....	23
6.HONDAKINEN ARLOKO EKINTZAK.....	28
7.IZAERA ZEHARKAKOA DUTEN EKINTZAK.....	31

1. SARRERA ETA TESTUINGURUA

1.1 Udalaren ibilbidea eta konpromisoa klima-aldaketaren aurrean

Donostiako Udalak ibilbide luzea egin du klima-aldaketari aurre egiteko konpromisoak hartzeari eta politika eta planak onesteari dagokionez. Bere **Tokiko Agenda 21** prozesuaren babespean egin du lan hori; 2004an, lehenengo Tokiko Ekintza Plana onartu zenean, ekin zion Udalak lan-esparru egonkor horri. Ingurumen Zuzendaritzak zuzentzen duen Tokiko Agenda 21 ekimenean modu aktiboan hartzen dute parte Udaleko gainerako sail eta zuzendaritzek ere, mahai teknikoan bitartez; mahai horiek urtero elkartzeko dira, ekintzen aurrerapen-maila aztertzeko.

2008an onartu zen **Klima-aldaketaren aurka Borrokatzeko lehenengo Plana**; gaur egun finkatuta dagoen lan-ildoaren hasiera izan zen plan hura. Berotegi-efektuko gasen (aurrerantzean, BEG) emisioak arintzea lehenetsi zen hasiera hartan eta, aurrerago, klima-aldaketara egokitzea ere funtsezko ardatz gisa txertatu zuen Udalak bere klima-ekintzan.

Covenant of Mayors mugimenduari atxiki zitzaion 2008an, eta **Mayors Adapt** ekimenari 2014an eta, horrekin batera, **Energia Jasangarritako Ekintza Plana (EJEA)** eta **Klima-aldaketara Egokitzeko Plana** Udalak duen konpromisoaren erakusgarri argia dira, eta klima-aldaketaren alorrean aurreratuen dauden Europako hiriburu eta hirien mailan jarri dute gure hiria.

2015an, **Pariseko Akordioa** mugarrizko izan zen mundu mailan klima-ekintzari dagokionez; ekintza-esparru guztietan barneratu zen eta, nola ez, baita tokiko esparruan ere. Udal Gobernuak ekintzarako deia eta tenperatura globala, industria-aurreko mailekiko, 2°C baino gehiago handitzea saihesteko eta 1,5 °C-ko iguera ez gainditzeko ahal den guztia egiteko neurriak lehenbailehen hartzeko beharri erantzun zion.

DSS Klima 2050 Estrategia, 2018an onartu zena, izan da Udalaren erantzuna; estrategia horrekin, tokiko ekintzaren norabidea Europak ezarritako eta administrazioaren maila guztietan onartutako helburuak betetzeko helburuz markatuko duen esparru estrategikoa eman zaio udalerrinari. Estrategia horrek lau lan-arloren inguruan egituratutako **58 ekintza** ditu; hauexek dira lan-arloak: **lurraldea, mugikortasuna, energia** eta **ekonomia zirkularra**. Estrategia horrekin, **BEGen** emisioak **2030. urterako % 40 murriztu** nahi dira.

Estrategia horren eta barneko lan-esparru bat izateko beharrezko ondorio da lan hau, Udalak (eta haren sozietate publikoek), erakunde gisa, helburu hori lortzen lagun dezan, eta beste erakunde batzuen, enpresen eta, azken batean, herritar guztien aurrean lan eredugarri bat egin dezan.

Hemen aurkezten den dokumentua **ekintza-plana** da, langileen **mugikortasunarekin**, udal-eraikin eta -ekipamenduetako **energia**-kontsumoarekin eta lantokiko **hondakinen** sorrerarekin eta kudeaketarekin lotutako alderdiei buruz egindako diagnostikotik ateratako ondorioetan oinarrituta egina. Agiri hauetan daude alderdi horietako bakoitzerako egindako azterlanaren xehetasunak: *"Donostiako Udaleko langileen mugikortasunaren diagnostikoa"* eta *"Udal eraikin eta ekipamenduetako energiari eta hondakinei buruzko diagnostikoa"*. Eranskinetan aurkezten dira agiriok.

2. PROIEKTUAREN HELBURUAK ETA IRISMENA

2.1 Klima-aldaketaren aurreko Barne-planaren helburuak

Klima-aldaketaren aurreko Barne-planaren helburu nagusia da Udalak, erakunde bat den aldetik, **Klima DSS 2050 Ekintza Planaren** helburuak lortzen laguntzea, eta **lan eredugarria** egitea, hiriko beste erakunde eta enpresa batzuentzako elementu bultzatzaile modura balio dezakeena.

Plan honekin, gainera, zera lortu nahi da:

- Udaleko langileen **mugikortasun-ohiturak** aldatzea, lanerako joan-etorrietakoak zein lan-orduen barruan egiten dituztenetakoak.
- Udal bulegoetako **energia-eskaria** murriztea eta **energia-eraginkortasuna** hobetzea.
- Udal bulegoetan **hondakinen** kudeaketa hobetzeko eta prebenitzeko eginkizunean aurrera egitea.
- Udaleko **langileak** klima-aldaketari aurre egiteko **jarraibideen** ezarpenean inplikatzeko.

2.2 Klima-aldaketaren aurreko Barne-planaren irismena

Hiru arlo zehatzetara mugatzen da Klima-aldaketaren aurreko Donostiako Udalaren Barne-plana: **Langileen mugikortasuna, udal ekipamenduetako eta bulegoetako energia-kontsumoa** eta **lanlekuetako hondakin-sorkuntza eta -kudeaketa**. Hala ere, mugikortasunarekin lotutako alderdiak dira azterlan honetan pisu handiena dutenak eta, horrekin bat etorritz, arlo horretan egin da lanik xehatuena.


Bestalde, azaldutako helburuak kontuan hartuta, ondorengo gogoetak egin behar dira, lanen irismena mugatzen dutenak:

- Ez dira sartu hirugarrenek erabiltzen dituzten lokalak (eraikinak, etxebizitzak, etab.); izan ere, ez dituzte erabiltzen udal langileek beren lan-esparruan. Horixe da Udalaren jabetzako etxebizitzak kasua, edo Sustapenak kudeatzen dituen bulego-eraikinena (Cemei, Pia, Talen House, Enerctic, etab.).
- Donostiako Tranbia Konpainia eta Anoeta Kiroldedia SA sozietatea ere lan honetatik kanpo utzi dira, tratamendu berezia behar duten ekipamenduak direlako.
- Energiaren esparru zehatzean, hurrenez hurren Udalari eta Sustapenari egozten zaizkien argiteria publikoko eta Gabonetako argiteriako kontsumoak atera dira analisitik.

Behin gai hauek argitu ondoren, eta urtero ISO 14064 arauari jarraiki egiten den BEGen inbentarioa kalkulatzeko hartutako erakundearen mugak oinarritzat hartuta, proiektuaren irismena zein izan den xehatzen da jarraian:

SAILAK	ORGANISMO AUTONOMOAK	UDAL ENPRESAK
<ul style="list-style-type: none"> • Hiri Mantentze eta Zerbitzuen Zuzendaritza • Osasuna eta Ingurumen Zuzendaritza • Mugikortasun Zuzendaritza • Lehendakartzako Zuzendaritza • Giza Baliabideen Zuzendaritza • Proiektu eta Obren Zuzendaritza • Hirigintza Jasangarriko Zuzendaritza • Udaltzaingoa • Euskara Zerbitzua • Prebentzioko, Su-itzalketako eta Salbamenduko Zerbitzua 	<ul style="list-style-type: none"> • Informatikako Udal Zentroa – DonostiaTIK • Musika eta Dantza Eskola • Kiroletako Udal Patronatua 	<ul style="list-style-type: none"> • Donostia Kultura, S.A. • Polloe Ehorzketa Zerbitzuak, S.A. • Donostiako Sustapena, S.A. • Turismo Sozietatea, S.A.

Bestalde, ekintza batzuei buruzko informazioa antzeko ezaugarriak dituzten eremuka batzuetarako da. Hurrengo mapan udalerraren zonakatzea ikus daiteke.



3. EKINTZA PLANA

3.1 Lan-arloen aurkezpena

MUGIKORTASUNA

Garraio publikoko eskaintzaren eta langileen bizitokiaren inguruan egindako analisitik eta inkestatik eskuratutako emaitzak abiapuntutzat hartuta, 13 ekintza formulatu dira guztira, ondoren adierazten diren bi programen inguruan egituratuta:

- Lantokira joateko ibilgailu pribatuaren erabilera murriztea (8 ekintza).
- Gestioetarako bidaietan mugikortasun-sistema berregituratzea (5 ekintza)

Jarraian, esku hartzeko programa horietako bakoitzerako kontuan hartu den ikuspegia azalduko dugu:

Lantokira joateko ibilgailu pribatuaren erabilera murriztea

Programa horren barruan jasotzen diren ekintzen helburua da motordun aukeren erabilera murriztea, ibilgailu pribatuarena batez ere, eta, era horretan, joan-etorri horiekin lotuta dauden Berotegi-efektuko Gasen (BEG) emisioak murriztea.

10 eremutan banatu da hiria, eta eremu horiek kontuan hartzen dituen planteamendu bat egin da; diagnostikoan egindako zonakatzearekin bat etorrita egin da hiriaren banaketa hori. Horregatik, planteatzen diren ekintzak ez daude eraikin zehaztutara bideratuta, baizik eta eraikin-multzoetara eta, kasu gehienetan, udaletxearen eraikin guztietara. Analisi xehatuagoa egin beharko da eraikin jakin batek ekintza bakoitza aplikatzeko.

Planaren diagnostikoaren emaitzek udalerraren egindako banaketaren ondoriozko eremuetako errealitate ezberdinak islatzen dituzte; ezberdintasun horiek ematen dira eremuok haien kokapenari dagokionez dituzten ondorengo ezaugarriengatik:

- Hiri-eremuaren finkapen-maila.
- Garraio publikoarekiko konexio-maila, udalerrri-mailan zein eskualde-mailan.
- Inguruko aparkalekuen erregulazioa.

Irizpide horiek kontuan hartuta, 10 eremuetara zuzenduta daude proposatutako ekintzetako batzuk, hau da, lanaren irismenean kontuan hartutako udal eraikin eta ekipamendu guztietara; beste batzuk, berriz, berriazko beharrak dituzten eremu jakinetara zuzenduta daude.

Gestioetarako bidaietan mugikortasun-sistema berregituratzea

Gestio-bidaiatzat hartu dira lan-ordutegiaren barruan lan-arrazoiengatik egiten diren joan-etorriak, hala nola:

- Udal barruan korrespondentzia eta paketeak banatzea (barne-posta)
- Batzarrak
- Obretara bisitak
- Hitzaldiak/Aurkezpenak
- Ikastaroak
- Landa-lanak

Beharrezkotzat jotzen da ekintzak ezarri aurretik gestio-bidaien tipologia eta eskakizunak barne-mailan aztertzea, motordun ibilgailu pribatu batean egin beharrekoak diren edo ez zehaztu ahal izateko. Horrela, bidaien eskakizunen arabera taldekatu ahal izango dira joan-etorriok eta, era horretan, dagozkion neurriak aplikatu.

Bestalde, jarduketa-programa honetako ekintzak ezarpen-sekuentzia logiko bati jarraiki ordenatuta daude. Garrantzitsua da kontu hori argitzea, egikarituko diren ordenak azken emaitza baldintzatuko baitu; hots, proposatutako sekuentziari jarraiki egikaritzuz gero, errazagoa izango da lortu nahi den efektua lortzea. Aitzitik, ekintzak proposatutakoa ez beste ordena batean egikaritzeak nahi ez diren emaitzak lortzea eragin lezake.

Halaber, argitu behar da aurreko programan proposatutako ekintzaren batek ere izango duela eragina laneko gestioetan, adibidez udal eraikinen kokapen berriak eta telelanak, haren edozein aldaeratan.

ENERGIA

Energiaren alorrean, esku hartzeko bi programatan egituratzen dira ekintzak:

- Energia-eskaria murriztea eta energia-eraginkortasuna hobetzea (6 ekintza).
- Udal eraikin eta ekipamenduetan energia berriztagarriak ezartzea (ekintza bat)

Kasu bietan, diagnostikoaren ondorioak hartu dira abiapuntutzat; ondorio horiek, aldi berean, 4/2019 Legearen errekerimenduekin lerrokatuta daude, eta ondorengo alderdietan zentratzen dira batik bat:

- Energia-kontsumoen kudeaketa optimizatzea.
- Energia-eskaria murrizteko eta energia-eraginkortasuna hobetzeko ekintzak indartzea eta finkatzea.
- Energia berriztagarrien sorkuntza handitzea eta autokontsumoa bultzatzea.
- Barne-koordinazioa, trebakuntza eta zabalkundea.

HONDAKINAK

Hondakinen alorrean, esku hartzeko programa bakarra dago, eta hor biltzen dira proposatutako hiru ekintzak:

- Udal eraikin eta ekipamenduetan hondakinen prebentzioa, berrerabilpena eta kudeaketa egokia sustatzea (3 ekintza).

Beste bi arloetan bezala, diagnostikotik ateratako ondorioetatik abiatzen dira ekintzak, eta hondakinen arloko ekintzak ondoren adierazten den lehentasun-ordenari jarraitu behar diola ezartzen duen hierarkiaren arabera ordenatu dira: Prebentzioa, berrerabilpena, birziklapena, balorizatzea eta ezabatzea. Arlo honetako ekintzak, gainera, udal lokaletan hondakinen gaikako bilketa hobetzeko proiektuarekin (2017koa) lerrokatuta daude.

ZEHARKAKO EKINTZAK

Azkenik, lan-programa bakarrean sartu dira zeharkako ekintzak:

- KABP koordinatzea, dinamizatzea eta sozializatzea (3 ekintza).

Plana, langileen trebakuntza eta ekintzen eta horien egikaritze-mailaren zabalkundea sustatzeko eta kudeatzeko barne-koordinazioko egiturak antolatzen bideratutako ekintzak sartzen dira programa honetan.

4/2019 Legeak lantzen ditu gai horiek guztiak, eta dagozkion errekerimenduak ezartzen ditu, udalek nahitaez bete beharrekoak. Egokitzen jo da arau-esparru hori aprobetxatzea, eta Legeak finkatzen dituen ekintzei mugikortasunaren eta hondakinen arloak gehitzea. Era horretan, Planaren kudeaketari eta koordinazioari modu bateratuan heldu nahi zaio eta, horrela, kontuak errendatzeko egiturak eta mekanismoak ez bikoiztea.

3.2 Ekintza Planaren eskema

MUGIKORTASUNA	
Ibilgailu pribatuen lanposturako sarbidea murriztea	
1	Udal-ekipamenduen kokapena aukeratzean mugikortasun-irizpideak txertatzea.
2	Langileen eguneroko joan-etorrien kopurua murriztea lan-formula berriak sustatuz.
3	Motorrek aparkatzeko dituzten baldintzak aztertzea, lanposturako sarbidea modu horretan iraunkorrago batera aldatzeko.
4	Udalak bere langileei ematen dizkion aparkalekuetarako sarbideen kasuistika eta egungo baldintzak aztertzea bere erabilera optimizatzeko.
5	DBiziko estazio birtualen emaitzak aztertzea.
6	Udaleko langile guztien artean autoa partekatzeko tresna bat prestatzea.
7	Bizikletaz lan egiteko aukera sustatzea, udal bulegoetan bertan bizikletentzako aparkalekuak ezarriz.
Gestioetarako bidaietan mugikortasun-sistema berregituratzea	
8	Udal-ibilgailuen erabilera antolatzea, langile bakoitzaren beharren arabera.
9	Bizikletak udal ibilgailuen parkean sartzea.
10	DBUS txartelaren bidez garraio publikoaren eskaintza udal arlo guztietara zabaltzea.
11	Udalaren baterako kudeaketako ibilgailuak esleitzeko udal-aplikazio bat sortzea.
12	Udal-ibilgailu parketik ibilgailu zaharrenak kentzea.
ENERGIA	
Energia-eskaria murriztea, eta energia-eraginkortasuna hobetzea	
13	Energia kontabilizatzeko sistema bat ezartzea, fakturazioa kontrolatzen eta udal ekipamenduetako kontsumoen jarraipen integrala egiten lagunduko duena.
14	Energia-auditoretzak egiten aurrera egitea, gutxienez 70 kW baino gehiagoko potentzia termikoa duten eraikin publiko guztietarako
15	Berogailurako eta Etxeko Ur Berorako ekoizpen-ekipoak aldatzea, eta sistema eraginkorragoak edo beste energia-iturri batzuk erabiltzea, lehentasuna emanez aurrezpen-marjina handiagoa dagoen eraikinei.
16	Argindar-kontsumoa murrizteko jarduketak (argiztapena kontrolatzea, argiak aldatzea, etab.) kontsumo handiko ekipamenduetara zabaltzea (bulegoak, kultura etxeak, etab.)
17	Ikastetxetan, eskola-komunitate osoa energia-aurrezpenean inplikatzeko aukera emango duten sentsibilizazio-ekintzekin, ekipamenduen energia-eraginkortasuna hobetzeko egiten ari den lanari jarraitutasuna ematea –ta lan hori indartzea.
18	Eraikin publikoetan langileek energia zentzuz kontsumitzea sustatzeko egindako jardunbide

	egokiak eta ekimenak arakatzea.
Udal eraikin eta ekipamenduetan energia berriztagarriak ezartzea	
19	Autokontsumoko instalazio fotovoltaikoak jartzeko estrategia bat diseinatzea, hiriko ekipamendu eta eraikin publikoek eskaintzen dituzten aukerei buruz egindako azterlanean oinarrituta
HONDAKINAK	
Udal eraikin eta ekipamenduetan hondakinen prebentzioa, berrerabilpena eta kudeaketa egokia sustatzea	
20	Lantokietan hondakinen prebentzioa eta berrerabilpena modu aktiboan sustatzea, ekimen zehatzen edo lan-protokoloen bitartez.
21	Udal eraikin eta ekipamenduetan sortzen diren hondakin-mota ezberdinak karakterizatzeko eta kuantifikatzeko azterlan bat egitea.
22	Dauden zaborrontzien erabilera eta erabilgarritasunaren jarraipen sistematikoa egiteko eta behar berriak detektatzeko protokoloa diseinatzea.
ZEHARKAKO EKINTZAK	
KABP koordinatzea, dinamizatzea eta sozializatzea	
23	Energia-jasangarritasunerako batzorde bat abian jartzea eta dinamizatzea, zeinaren barruan KABPren jarraipena egin dadin.
24	Udal langileei zuzenduta, klima-aldaketari buruzko trebakuntza- eta sentsibilizazio-plan bat diseinatzea eta abian jartzea.
25	KABPren barruan ezarritako neurriak ezagutzera ematea, biurteko Jarraipen-txostenaren bitartez

4. MUGIKORTASUNAREN ARLOKO EKINTZAK

MUGIKORTASUNA			
Programa	Ibilgailu pribatuen lanposturako sarbidea murriztea		
1go EKINTZA	Udal-ekipamenduen kokapena aukeratzean mugikortasun-irizpideak txertatzea		
DESKRIBAPENA	<p>Udal-bulegoen kokapena aukeratzeko orduan, irizpide teknikoak, espazialak, ekonomikoak, etab. hartu dira kontuan. Plan honetatik atera diren datuen argitasuna dela eta, komenigarria da mugikortasuna irizpide edo baldintzatzaile horietan txertatzea, abiapuntu erabakigarria baita langileek beren lanpostura iristeko mugikortasun iraunkorra izan dezaten.</p> <p>Plan honen diagnostiko-fasean egindako <u>irisgarritasun-mapak</u> udal-bulegoak birkokatzeko planetan kontuan hartu beharreko informazio garrantzitsua ematen du. Mapak Donostiako udalerrinari egiten dio erreferentzia, eta koloreen arabera adierazita daude irisgarrienak diren eremuak, bai oinez, bai bizikletaz, bai garraio publikoan; kolorea zenbat eta beroagoa izan, orduan eta jende gehiago sar daiteke puntu horretara, modu ez hain kutsatzaileetan. Udal-zentro gehienak leku horietan kokatuz, lanpostura hain kutsatzaileak ez diren moduetan joateko erraztasunak ematen ari gara langileei.</p> <p>Udal-eremuen kokapena bateratzeak, irisgarritasun ona duten eremuetako eraikin kopuru txikiagoan elkartzuz, bai oinez eta bizikletaz, bai garraio publikoan, lanpostura gutxiago kutsatzen duten garraiobideen bidez iristea errazten du. Era berean, helmugak bateratzean, autoa partekatzea errazten da. Udal-eraikinak birkokatzeari esker, lan-kudeaketako bidaiak murriztu ahal izango dira, ingurune berean egiten baitira (eraikin bereko hainbat solairutan edo aldameneko eraikinetan).</p> <p>Gainerako udal-eraikinekin batera bateratu ezin diren udal-egoitza deszentralizatueta, hala nola hiriko auzoetan kokatu behar diren kultura-etxeetan edo gizarte-zerbitzuetako zentroetan, zaindu egin behar da gunehorietan trinkoa duten eremuetan egotea, garraio publikoan sarbide egokia duten eta araututako aparkalekua duten lekuetan. Eremu trinkoetan ezartzeak, halaber, erraztu egiten du herritarrak bertara oinez sartzea.</p> <p>Komeni da irizpide horiek zabaltzea eraikin/eremu berriak kokatzeko, automobilez erraz iristeko moduko eremuetan edo garraio publikotik eta oinezkoentzako garraioetatik urrun dauden eremuetan, hala nola hiri-inguruetan, ezartzeko aukeraren aurrean.</p>		
ARDURADUN NAGUSIA	OIZ - Ingurumen-osasuneko eta Jasangarritasuneko Zerbitzua	BESTE ARDURADUN	Mugikortasun Zuzendaritza

					BAT				
EGIKARITZE-EPEA	2021-2025tik aurrera				LEHENTASUNA		Handia		
NEURRIA	2	3	4	5	6	7	8	9	10
APLIKATZEN DEN EREMUAK	x	x	x	x	x	x	x	x	x
GUTXI GORABEHERAKO KOSTUA	Kosturik gabe								
OHARRAK									

MUGIKORTASUNA									
Programa	Ibilgailu pribatuen lanposturako sarbidea murriztea								
2. EKINTZA	Langileen eguneroko joan-etorrien kopurua murriztea lan-formula berriak sustatuz								
DESKRIBAPENA	<p>Joan-etorriak murriztea da mugikortasunarekin lotutako emisioak murrizteko moduetako bat. Telelana eta online bilerak (barnekoak eta kanpokoak) sustatzeak helburu hori lortzen lagunduko du. Lanpostu jakin batzuetan aplikatu ahal izango da; horregatik, beharrezkoa izango da lanpostu bakoitzak bete behar dituen ezaugarriak aztertzea, telelana egiteko hautagai izateko.</p> <p>2020an bizi izan dugun garai berezi honetan, langile gehienek online lan egin behar izan dute. Etapa horretan, bilerak, mintegiak, ikastaroak eta abar telematikoki garatu behar izan dira, eta horrek joan-etorrietan emisioak murriztea ahalbidetu du. Bestalde, Pertsonen Zuzendaritzak proba pilotu bat ere abiarazi du, etorkizunean ezarriko den parte-hartzaile talde hautatu batekin.</p> <p>Hala, bi egoera horiek abiapuntutzat hartuta, erakundeak telelanak udal-plantillan dauden lan-tipologia desberdinetan zer dakarren erakutsi ahal izango du, ikasteko eta maila globalean egon diren gabeziak eta zailtasunak ikusteko, eta horiek ezartzen jarraitzearen komenigarritasuna modu iraunkorragoan edo orokortuagoan baloratu ahal izateko ondorio egokiak atera ahal izateko.</p>								
ARDURADUN NAGUSIA	OIZ - Ingurumen-osasuneko eta Jasangarritasuneko Zerbitzua				BESTE ARDURADUN BAT		Lehendakaritzako Zuzendaritza		
EGIKARITZE-EPEA	2020-2025tik aurrera				LEHENTASUNA		Ertaina		
NEURRIA APLIKATZEN DEN EREMUAK	2	3	4	5	6	7	8	9	10
	x	x	x	x	x	x	x	x	x
GUTXI GORABEHERAKO KOSTUA	Kosturik gabe								
OHARRAK									

MUGIKORTASUNA																																	
Programa	Ibilgailu pribatuen lanposturako sarbidea murriztea																																
3. EKINTZA	Motorrek aparkatzeko dituzten baldintzak aztertzea, lanposturako sarbidea modu horretan iraunkorrago batera aldatzeko.																																
DESKRIBAPENA	<p>Motorreko mugikortasuna errazten duen arrazoi nagusietako bat helmugan arautu gabeko aparkalekua izatea da. Udal-plantillaren mugikortasunari buruzko inkestaren emaitzetan egiaztatu da autoaren erabilera, oro har, handiagoa dela udalerrian motorrarena baino. Hala ere, azterketa zonaka egitean, ikusten da araututako aparkalekua dagoen tokietan motorrez sartzen diren pertsonen ehunekoa handiagoa dela autoz sartzen direnena baino. Izan ere, TAO araudiaren arabera, motorrak aparkatzeko murrizketetatik kanpo geratzen dira (bai kostuari dagokionez, bai denborari dagokionez).</p> <p>Adibide gisa, Donostian eta Donostialdeko gainerako lekuetan aparkatzea araututa dagoen hiriko hurrengo eremuetara doazen langileen autoaren aldean motorrez egiten diren bidaien ehunekoa erakusten da..</p> <table border="1" data-bbox="459 869 1321 1077"> <thead> <tr> <th rowspan="2"></th> <th colspan="2">Donostia</th> <th colspan="2">Donostialdea</th> </tr> <tr> <th>Kotxea</th> <th>Motorra</th> <th>Kotxea</th> <th>Motorra</th> </tr> </thead> <tbody> <tr> <td>4 Zonaldea</td> <td>%2</td> <td>%7</td> <td>%13</td> <td>%29</td> </tr> <tr> <td>5 Zonaldea</td> <td>%8</td> <td>%9</td> <td>%0</td> <td>%30</td> </tr> <tr> <td>6 Zonaldea</td> <td>%2</td> <td>%6</td> <td>%10</td> <td>%16</td> </tr> </tbody> </table> <p>Plan honen garapenaren helburu nagusia lanposturako sarbidea murriztea da, ibilgailu pribatuen, bai motorrean, bai autoan. Ildo horretan, aparkatzeko araututako eremuei esker murriztu egin da auto bidezko mugikortasuna hirian, baina araudi horrek motorrei eragiten ez dienez, autoa motorrera pasatzen da. Beraz, hirian motorreko mugikortasuna aztertu behar da, eta aparkatzeko mugak ezarri behar diren zehaztu.</p>										Donostia		Donostialdea		Kotxea	Motorra	Kotxea	Motorra	4 Zonaldea	%2	%7	%13	%29	5 Zonaldea	%8	%9	%0	%30	6 Zonaldea	%2	%6	%10	%16
	Donostia		Donostialdea																														
	Kotxea	Motorra	Kotxea	Motorra																													
4 Zonaldea	%2	%7	%13	%29																													
5 Zonaldea	%8	%9	%0	%30																													
6 Zonaldea	%2	%6	%10	%16																													
ARDURADUN NAGUSIA	OIZ - Ingurumen-osasuneko eta Jasangarritasuneko Zerbitzua				BESTE ARDURADUN BAT		Mugikortasun Zuzendaritza																										
EGIKARITZE-EPEA	2021-2022						Handia																										
NEURRIA APLIKATZEN DEN EREMUAK	2	3	4	5	6	7	8	9	10																								
	x	x	x	x	x	x	x	x	x																								
GUTXI GORABEHERAKO KOSTUA	Kosturik gabe																																
OHARRAK																																	

LEHENTASUNA

MOVILIDAD									
Programa	Ibilgailu pribatuen lanposturako sarbidea murriztea								
4. EKINTZA	Udalak bere langileei ematen dizkion aparkalekuetarako sarbideen kasuistika eta egungo baldintzak aztertzea bere erabilera optimizatzeko.								
DESKRIBAPENA	<p>Ibilgailu pribatuko mugikortasuna errazten duen arrazoi nagusietako bat helmugan aparkalekua izatea da. Udal-plantillaren mugikortasunari buruzko inkestaren emaitzetan egiaztatu denez, batez ere 3., 9. eta 10. eremuetan, ibilgailu pribatuen sartzeko diren pertsonen ehuneko handi batek Udalak berak emandako aparkalekua erabiltzen du.</p> <p>Plan hau garatzeko proposamenak lanposturako sarbidea murrizteko neurriak proposatzen ditu ibilgailu pribatuen, bai motorrean, bai autoan. Hori dela eta, plazak erabiltzeko irizpideak erabiltzailearen tipologiaren arabera (garraio publikoaz bestelako sarbide-ordutegia, ibilgailua partekatzeak aukera, larrialdiak, mugikortasun murriztua duten pertsonak) aztertzeak beharra planteatzen da, bai eta beste ingurune jasangarriago batean sartzeko ezintasuna ere.</p>								
ARDURADUN NAGUSIA	OIZ - Ingurumen-osasuneko eta Jasangarritasuneko Zerbitzua				BESTE ARDURADUN BAT		Mugikortasun Zuzendaritza		
EGIKARITZE-EPEA	2021-2022				LEHENTASUNA		Handia		
NEURRIA APLIKATZEN DEN EREMUAK	2	3	4	5	6	7	8	9	10
		x						x	x
GUTXI GORABEHERAKO KOSTUA	Kosturik gabe								
OHARRAK	Eremu hauek lehenetsi dira neurri hau ezartzeko, gaur egun, udal-aparkalekuen erabilera altuenekoak baitira, baina aparkalekuaren erabilerari buruzko irizpide selektiboak udal osora zabaldu beharko lirateke.								

MOVILIDAD									
Programa	Ibilgailu pribatuen lanposturako sarbidea murriztea								
5. EKINTZA	DBiziko estazio birtualen emaitzak aztertzea								
DESKRIBAPENA	<p>DBizik laster bi estazio birtual izango ditu hiriko guneko espezifikoetan, hala nola DBusen instalazioetan eta Udaltzaingoaren eraikinean. Geltoki horietan, bizikleta utzi ahal izango da, ainguraketa fisikorik gabe, eta, horrela, ohiko ordutegitik kanpo erabili ahal izango da (6:00etatik 00:00etara), eta lanpostuetako beharrak direla-eta egun osoan zehar gertatzen den kolektibo bati lanerako sarbidea erraztuko zaio.</p> <p>Aztertuko da proposatutako irtenbideak, Plan honetan aurreikusten diren gainerako neurriekin batera, lan-ordutegi bereziak dituzten langileen bi kolektiboren mugikortasun-premiei erantzuten dien eta lanera iristeko autoaren erabilera murrizten den.</p>								
ARDURADUN NAGUSIA	OIZ - Ingurumen-osasuneko eta Jasangarritasuneko Zerbitzua				BESTE ARDURADUN BAT	Mugikortasun Zuzendaritza			
EGIKARITZE-EPEA	2021				LEHENTASUNA	Ertaina			
NEURRIA APLIKATZEN DEN EREMUAK	2	3	4	5	6	7	8	9	10
	x	x						x	x
GUTXI GORABEHERAKO KOSTUA	Kosturik gabe								
OHARRAK									

MOVILIDAD									
Programa		Ibilgailu pribatuen lanposturako sarbidea murriztea							
6. EKINTZA		Udaleko langile guztien artean autoa partekatzeko tresna bat prestatzea							
DESKRIBAPENA		<p>Planteatzen den helburua lanera sartzeko ibilgailu kopurua murriztea da. Horretarako, proposatzen diren gainerako neurriez gain, beharrezkoa da ibilgailu pribatua modu arrazionalagoan erabiltzea eta okupazioa handitzea. Hori udal-aplikazio baten bidez egin liteke, lanean hasteko modalitate hori erabili nahi dutenak harremanetan jartzeko.</p> <p>Inkestaren erantzunetan ikusi denez, Donostiako udal-eraikin guztietako langileen % 30 ibilgailu pribatuz sartzen da lanpostura; % 30 horietatik % 2 autoa partekatuz sartzen da; horrek esan nahi du lanpostuetara sartzen diren ibilgailuen okupazio-indizea 1,1 bidaiariko dela ibilgailu bakoitzeko.</p> <p>Diagnostikoan jada zehaztu zen ibilgailu pribatura bidaiatzeko aukerarik baloratuenetako bat autoa partekatzea zela, eta langileen % 43k adierazi zuten aldatu egingo zutela ibilgailu pribatuen bakarrik joatea bidaiak partekatzeagatik. Horregatik, ibilgailu partekatuaren erabilera sustatu nahi da, bidaiak egiteko orduan, ordutegiak eta antzeko ibilbideak dituzten langileak elkartu daitezten, ibilgailu kopurua murriztuz eta bidaiak egiteko orduan gastuak partekatuz. Neurri horrek eragina izango du planteatutako helburuan, bai eta ibilgailu pribatuek eragindako kutsadura eta kontsumo energetikoaren jasangarritasunean eta murrizketan ere.</p> <p>Horrela, tresna informatiko bat sortuko litzateke, udalaren webgunean bertan aplikazio bat edo atal bat, Udaleko langile guztientzat eskuragarri egongo litzatekeena eta plantillako beste pertsona batzuekin harremanetan jartzeko aukera emango lukeena, ibilgailu pribatua partekatzeke. Eragina izan dezan, erabiltzaileak sustatuko dituzten zenbait baldintza hartu behar dira kontuan:</p> <ul style="list-style-type: none"> • Aplikazioaren komunikazio eta publizitate ona. • Aplikazioaren erabilera erraza eta intuitiboa izatea. • Udalak langileei ematen dien aparkalekuaren kudeaketa eraginkorra. 							
ARDURADUN NAGUSIA	OIZ - Ingurumen-osasuneko eta Jasangarritasuneko Zerbitzua	BESTE ARDURADUN BAT		Lehendakaritza Zuzendaritza					
EGIKARITZE-EPEA	2021-2022	LEHENTASUNA		Handia					
NEURRIA APLIKATZEN DEN EREMUAK	2	3	4	5	6	7	8	9	10
	x	x	x	x	x	x	x	x	x
GUTXI GORABEHERAKO	10.000-20.000 €								

KOSTUA	
OHARRAK	Ekintza honen kostua Ingurumen-osasuneko eta Jasangarritasuneko Zerbitzutik ordainduko da.

MOVILIDAD									
Programa	Ibilgailu pribatuen lanposturako sarbidea murriztea								
7. EKINTZA	Bizikletaz lan egiteko aukera sustatzea, udal bulegoetan bertan bizikletentzako aparkalekuak ezarriz.								
DESKRIBAPENA	<p>Neurri horren bidez, ibilgailu pribatuak lanera sartzeko egiten dituen bidaiak bizikletara aldatzea lortu nahi da. Neurri hori, batez ere, lanpostutik 5 km-ko erradioan bizi diren langileei zuzenduta dago. Egia da, halaber, mugikortasun mota horretan klimatologiak garrantzi handia duela, eta eskaera asko aldatzen dela urtarokotasunaren arabera.</p> <p>Aldaketa hori egiteko hautagai izan daitezkeenak erakartzeko, oso garrantzitsua da aparkaleku seguruak jartzea udal-bulegoetan edo ingurunean. Planean zehar esan den bezala, helmugan doako aparkalekua izatea pizgarria da pertsonak garraiobide horren alde egin dezaten.</p> <p>Hori dela eta, neurria ezarri aurretik, eraikin edo eraikin-multzo bakoitzaren behar espezifikoak aztertuko dira, eta bertan zehaztuko dira kokapen egokiena, aparkaleku-zuzkiduraren beharrezko bolumena eta horiek erabiltzeko baldintzak.</p> <p>Ekintza hau, batez ere, ekipamendu berrietan edo egungoen berrikuntzan bultzatuko da, bizikletentzako aparkalekuak izan beharko baitituzte.</p>								
ARDURADUN NAGUSIA	OIZ - Ingurumen-osasuneko eta Jasangarritasuneko Zerbitzua				BESTE ARDURADUN BAT		Lehendakaritza Zuzendaritza		
EGIKARITZE-EPEA	2021-2022				LEHENTASUNA		Ertaina		
NEURRIA APLIKATZEN DEN EREMUAK	2	3	4	5	6	7	8	9	10
	x	x	x	x	x	x	x	x	x
GUTXI GORABEHERAKO KOSTUA	8.000-20.000 €								
OHARRAK	Ekintza honen kostua Ingurumen-osasuneko eta Jasangarritasuneko Zerbitzutik ordainduko da.								

MUGIKORTASUNA									
Programa	Gestioetarako bidaietan mugikortasun-sistema berregituratzea								
8. EKINTZA	Udal-ibilgailuen erabilera antolatzea, langile bakoitzaren beharren arabera								
DESKRIBAPENA	<p>Lan-gestioen esparruan, plan honen garapen-prozesutik ateratako proposamenak udal-ibilgailuaren erabilera murriztea bilatzen du, baita beste mugikortasun modu jasangarriago batzuk areagotzea ere, hala nola garraio publikoa, bizikleta eta oinez ibiltzea.</p> <p>Isuraldatze hori lortzeko, beharrezkoa da, alde batetik, garraio publikoaren eta bizikletaren erabilera sustatzea, eremu bakoitzetik erraztasunak emanaz (dokumentu honetan bertan garatutako beste proposamen batzuetan zehazten dira erraztasun horiek).</p> <p>Bestalde, ezinbestekoa da udal-ibilgailuak erabiltzeko irizpideak ezartzea. Horretarako, Udalean dauden lan-tipologia eta gestio-desplazamendu guztiak aztertu beharko dira. Informazio hori eskura dagoenean, ibilgailu motordunen erabilera mugatu ahal izango da ezinbestekoak diren lan-gestioetara.</p> <p>Adibide gisa, honako faktore hauek hartu behar dira kontuan: lanpostua, egin beharreko kudeaketa mota, garraiatzen diren objektuak, egin beharreko distantzia, mugikortasun iraunkorragoko alternatibak edo langilearen baldintza pertsonalak. Horrela, hirian autoz egiten diren barne-bidaien bolumena murriztea lortuko da, berotegi-efektuko gasen isurketa murriztuz.</p>								
ARDURADUN NAGUSIA	OIZ - Ingurumen-osasuneko eta Jasangarritasuneko Zerbitzua				BESTE ARDURADUN BAT		Mugikortasun Zuzendaritza eta Hiri Mantentze eta Zerbitzuen Zuzendaritza		
EGIKARITZE-EPEA	2021-2022				LEHENTASUNA		Handia		
NEURRIA APLIKATZEN DEN EREMUAK	2	3	4	5	6	7	8	9	10
	x	x	x	x	x	x	x	x	x
GUTXI GORABEHERAKO KOSTUA	Kosturik gabe								
OHARRAK									

MUGIKORTASUNA									
Programa	Gestioetarako bidaietan mugikortasun-sistema berregituratzea								
9. EKINTZA	Bizikletak udal ibilgailuen parkean sartzea								
DESKRIBAPENA	<p>Udal-ibilgailuetan egiten diren lan-gastioetako bidaien kopurua murrizteko, udal-eremuetarako bizikletak erostea planteatzen da, eta horrek plantillarako gestio-ibilgailuen tipologia handitzea dakar. Beste azterlan batzuk egin ondoren, eta EKPBren diagnostikoan erakutsi den bezala (inkestako 13. galdera), ondoriozta dezakegu proposamen hori batez ere 5 km inguruko ibilbideetara bideratuta dagoela; izan ere, lana dela-eta bizikletaz egiten diren joan-etorriak ohikoagoak izaten dira hiri-inguruneetan eta ibilbide labur samarretan. Egia da, halaber, mugikortasun mota horretan klimatologiak garrantzi handia duela, eta eskaera asko aldatzen dela urtarokotasunaren arabera.</p> <p>Hala, bi aukera daude bizikleta udal ibilgailu gisa ezartzeko: gaur egun Donostian dagoen bizikleta publikoa erabiltzea (DBizi), edo udal eremuetarako bizikleta propioak erostea.</p> <p>Udalaren bizikleta publikoen parkea mugatua denez, Udaleko langileek hura erabiltzeak herritarrek garraibide hori erabiltzeko dituzten aukerak murriztea ekarriko luke (hori ez da gertatzen garraio publikoa bada, pertsona batek erabiltzeak ez baitu eragozten beste pertsona batzuek erabiltzea). Horregatik, aukerarik onargarriena bizikletak erostea da (pedalei eragitekoak edo ez) Eremuen eta horien erabilpen eskusiboa.</p> <p>Bizikletak erabiltzen dituztenen segurtasuna bermatzeko eta erabiltzea bultzatzeko beharrezko neurrien artean, bizikletak erabiltzeko ikastaroak sartu beharko dira.</p>								
ARDURADUN NAGUSIA	OIZ - Ingurumen-osasuneko eta Jasangarritasuneko Zerbitzua				BESTE ARDURADUN BAT		Mugikortasun Zuzendaritza		
EGIKARITZE-EPEA	2021-2023				LEHENTASUNA		Ertaina		
NEURRIA APLIKATZEN DEN EREMUAK	2	3	4	5	6	7	8	9	10
	x	x	x	x	x	x	x	x	x
GUTXI GORABEHERAKO KOSTUA	8.000-20.000 €								
OHARRAK	Sail bakoitzak bere gain hartuko du kostua, bere beharren arabera.								

MUGIKORTASUNA									
Programa	Gestioetarako bidaietan mugikortasun-sistema berregituratzea								
10. EKINTZA	DBUS txartelaren bidez garraio publikoaren eskaintza udal arlo guztietara zabaltzea.								
DESKRIBAPENA	<p>Planean zehar ikusi den bezala, gestio-bidaiak egiteko garraiobideetako bat ibilgailu pribatua da; horregatik, modu horretan egiten diren lan-gestio bidaien kopurua murriztea proposatzen dugu.</p> <p>Isuraldatze hori lortzeko, garraio publikoaren erabilera sustatu behar da, eremu bakoitzeko langileek erraztasunak izan ditzaten. Horregatik, komenigarritzat jotzen da arlo bakoitzak DBUS txartel arruntak izatea, ez-pertsonalizatuak, lanaldian arlo bakoitzeko langileek erabili ohi dituztenak.</p>								
ARDURADUN NAGUSIA	OIZ - Ingurumen-osasuneko eta Jasangarritasuneko Zerbitzua				BESTE ARDURADUN BAT		Lehendakaritza Zuzendaritza		
EGIKARITZE-EPEA	2022-2023				LEHENTASUNA		Ertaina		
NEURRIA APLIKATZEN DEN EREMUAK	2	3	4	5	6	7	8	9	10
	x	x	x	x	x	x	x	x	x
GUTXI GORABEHERAKO KOSTUA	4.500-8.000 €								
OHARRAK	Sail bakoitzak bere gain hartuko du kostua, bere beharren arabera.								

MUGIKORTASUNA									
Programa	Gestioetarako bidaietan mugikortasun-sistema berregituratzea								
11. EKINTZA	Udalaren baterako kudeaketako ibilgailuak esleitzeko udal-aplikazio bat sortzea.								
DESKRIBAPENA	<p>Laneko joan-etorrietan erabiltzen diren ibilgailuak kudeatzeko modurik errazenetako bat ibilgailuen erreserbak kudeatzeko aplikazio edo sistema bat izatea da. Aplikazio horretarako sarbidea beharrezkoa izango da, baldin eta udal-ibilgailu bat erabili nahi bada, eta kontuan hartuko diren udal-flotaren ibilgailu-tipologia guztiak (baita udal-eraikinetan sartzen diren bizikleta berriak eta mugi garraio publikoa erabiltzeko txartela ere) eta laneko gestioak egiteko ibilgailu horiek erabiltzeko kontuan hartu nahi diren baldintza guztiak jasoko dira.</p> <p>Gaur egun ez dago baterako aplikaziorik ibilgailuak erregistratzeko eta erabiltzeko edo erreserbatzeko, eta horrek zaildu egiten du ibilgailuak erabilgarri dauden jakitea. Aplikazio mota horrek erraztu egingo luke udal-ibilgailuak zonaldeka edo eraikin-multzoka partekatzea, baita ibilbideak partekatzea ere, bat badatoz, eta ahalik eta ibilgailu gutxien erabiliz ahalik eta etekin handiena ateratzea.</p> <p>Orientazio gisa, aplikaziora sartzean, langileak egin behar duen gestio-tipologia erregistratu beharko du, data, ordua, jatorria/helmuga eta mugigarritasun pertsonaleko premiak, mugaren bat egonez gero. Horrela, aplikazioak zehaztuko lituzke eskuragarri dauden moduak (autoa, taxia, mugi txartela, bizikleta), eta eskatzaileak dagokion ibilgailua gordeko luke ezarritako aldirako. Ahal den kasuetan, oinez joatea izango da lehentasunezko aukera.</p> <p>Interesgarria izango litzateke berotegi-efektuko gasen isuriei eta joan-etorri bakoitzeko energia-gastuari buruzko informazioa gehitzea aplikazioan. Horiek garraio-moduaren aukera bakoitzarekin batera agertuko dira, eta informazio hori lagungarria izango da langileek modua hauta dezaten.</p>								
ARDURADUN NAGUSIA	OIZ - Ingurumen-osasuneko eta Jasangarritasuneko Zerbitzua				BESTE ARDURADUN BAT		• Hiri Mantentze eta Zerbitzuen Zuzendaritza eta Mugikortasun Zuzendaritza		
EGIKARITZE-EPEA	2023-2024				LEHENTASUNA		Handia		
NEURRIA APLIKATZEN DEN EREMUAK	2	3	4	5	6	7	8	9	10
	x	x	x	x	x	x	x	x	x
GUTXI GORABEHERAKO KOSTUA	10.000-20.000 €								
OHARRAK	Ekintza honen kostua Hiri Mantentze eta Zerbitzuen Zuzendaritzatik ordainduko da.								

MUGIKORTASUNA			
Programa	Gestioetarako bidaïetan mugikortasun-sistema berregituratzea		
12. EKINTZA	Udal-ibilgailu parketik ibilgailu zaharrenak kentzea.		
DESKRIBAPENA	<p>Laneko gestioen kasuan, zenbait neurri garatu dira ibilgailu motordunen erabilera murrizteko. Neurri horiekin, joan-etorriak hain kutsagarriak ez diren moduetara aldatzea lortuko da, eta, beraz, egungo udal-parke mugikorra egokitu ahal izango da, eta ibilgailu zaharrenak edo kutsatzaileenak kendu ahal izango dira; izan ere, aurreikusten da behar diren ibilgailuen kopurua txikiagoa izatea eta erabilera arrazionalizatzea. Beraz, oso garrantzitsua da neurri hori lehen ezarri direnekin paraleloan joatea.</p> <p>Logikoa denez, udal-eraikinen kudeaketa eta kokapen bakoitzaren izaeragatik, ezin izango dira desagertu udal-ibilgailu motordunetan egindako bidaia guztiak, baina lor daiteke, erabiltzen diren kasuetan, egungoak baino gutxiago kutsatzen duten ibilgailuekin egitea. Horretarako, lan-arrazoiengatik joan-etorrien azterketa zehatza egin beharko da, bidaia-tipologiak eta ibilbide bakoitzerako behar diren ibilgailu-motak barne. Behin bloke horiek katalogatuta, zehaztu ahal izango da zein ibilgailutatik alde egin daitekeen eta zein kasutan berritu beharko den flota.</p> <p>Ildo horretan, EAEko Jasangarritasun Energetikoari buruzko 4/2019 Legearen Honako hau ezartzen dute 18.1 eta 18.2 artikuluek: <i>"Euskal administrazio publiko bakoitzaren instalazioak, ekipoak, flotak eta ibilgailuak berritzeko, kontuan hartu beharko dira energiaren, kostuaren eta produktuaren, ondasunaren edo zerbitzuaren balio-bizitzaren aurrezpen eta efizientziako irizpideak, bai eta berotegi-efektuko emisioak murrizten laguntzen duten energia alternatiboen erabilera ere".</i> Gainera, <i>"Erregulazio harmonizatuko sektore publikoko kontratuen kasuan, euskal administrazio publikoek honako hauek hartu beharko dituzte kontuan: Errepide bidezko garraiorako ibilgailuak eta pneumatikoak erosterakoan, horien bizi-zikloa eta horien energia- eta ingurumen-inpaktuak".</i></p> <p>Era berean, 21. artikulua honako hau dio::</p> <ol style="list-style-type: none"> <i>1. Euskal herri-administrazioek ordezeko erregaien erabilera sustatuko dute, ingurumen-inpaktua arintzeko eta ibilgailu-flotak petrolioarekiko duen mendekotasuna gutxitzeko.</i> <i>2. 2020tik aurrera, euskal administrazio publikoek erosten dituzten ibilgailuen % 100ek erregai alternatiboak erabili beharko dituzte.</i> <i>3. Aurreko paragrafoan adierazitako betebeharrak ez die eragingo, egiten duten jardueraren ezaugarri bereziak kontuan hartuta, petroliotik eratorritako erregaiak bultzatutako gutxieneko garraio-ibilgailu bat edukitzeko beharra justifikatzen duten sailei edo erakundeei. (...)</i> <i>4. Eraikin berriek ibilgailu elektrikoak kargatzeko puntuak izan beharko dituzte.</i> <p>Gutxiago kutsatzen duten ibilgailuen parkea berritzearekin batera, udal-flotaren zenbait aparkalekutan zama-puntuak jartzea proposatzen da.</p>		
ARDURADUN NAGUSIA	OIZ - Ingurumen-osasuneko eta Jasangarritasuneko Zerbitzua	BESTE ARDURADUN BAT	Hiri-Mantentze eta Zerbitzuen Zuzendaritza

							eta Mugikortasun Zuzendaritza		
EGIKARITZE-EPEA	2020-2022				LEHENTASUNA		Handia		
NEURRIA	2	3	4	5	6	7	8	9	10
APLIKATZEN DEN EREMUAK	x	x	x	x	x	x	x	x	x
GUTXI GORABEHERAKO KOSTUA	>80.000 €								
OHARRAK	Ekintza hau gauzatzeko epea aurreratu egin da 4/2019 Legearen eskakizunak betetzeko (lan-eremuen aurkezpenean azaltzen den sekuentzia logikoan oinarrituta, berau beranduago abian jartzea aurreikusten zen).								

5. ENERGIAREN ARLOKO EKINTZAK

ENERGIA					
Programa	Energia-eskaria murriztea, eta energia-eraginkortasuna hobetzea				
13. EKINTZA	Energia kontabilizatzeko sistema bat ezartzea, fakturazioa kontrolatzen eta udal ekipamenduetako kontsumoen jarraipen integrala egiten lagunduko duena				
DESKRIBAPENA	<p>Ekintza honen helburua da kontabilitate energetiko integraleko eredu batera aurrera egitea, kontsumoen kudeaketa optimizatzea, denbora errealean udal hornikuntza eta ekipamendu ezberdinen informazioa eskuratzea eta, aldi berean, 4/2019 Legeak kontsumoen jarraipenari dagokionez finkatzen dituen errekerimenduak betetzea.</p> <p>Horretarako, beharrezkoa da energia-kudeaketako tresna edo software bat izatea, kontsumoen karga automatizatuaren bitartez hornikuntza bakoitzaren kontsumo-datuak kontrolatzen eta, horrekin, eraikin bakoitzeko kontsumoen jarraipen zorrotza egiten lagunduko duena.</p> <p>Zehazki, aipatutako Legearen 11. eta 12. artikuluen errekerimenduei erantzun ahal izango litzaieke ekintza honekin; jarraian xehatzen dira artikulukoak:</p> <ul style="list-style-type: none"> • 11. artikulukoak ezartzen du herri administrazioek haien jardun-eremuaren barruan dituzten eraikinen, ibilgailu-parkearen eta argiteria publikoko instalazioen inbentarioa egiteko obligazioa dutela, kontsumoen xehapena barne, besteak beste. • 12. artikulukoak, bestalde, jasotzen du derrigorrezkoa dela eraikin bakoitzeko energia-kontsumoa kontrolatzea, erabiltzen diren energia guztien kontsumo guztiak eta kontsumo horien kostua barne; gutxienez urtean behin egin behar da kontrol hori, hilabetetan oinarrituta. <p>Energia-kontsumoak berotegi-efektuko gasen emisioetan dituen ingurumen-inplikazioez eta pisuaz gain, energia-gastuak pisu handia du Udalaren aurrekontuetan ere. Ekintza honekin, tarifak eta fakturazioa doitzetik eratorritako zuzeneko aurrezpenak lor litezke, baita kontsumoen kontrolatik eta jarraipenetik eratorritakoak ere.</p>				
ARDURADUN NAGUSIA	OIZ – Ingurumen-osasun eta Jasangarritasun Zerbitzua [energia-eraginkortasunaren sekzioa]	BESTE ARDURADUN BAT			
EGIKARITZE-EPEA	2021-2025tik aurrera	LEHENTASUNA	Handia		
ZEIN ERAIKIN-TIPOLOGIATAN APLIKATZEN DEN	IKASTETXEAK	BULEGOAK.	KULTUR-ETX.	KIROL-INST.	BEST.
	x	x	x	x	x

GUTXI GORABEHERAKO KOSTUA	8.000-20.000 €
OHARRAK	

ENERGIA					
Programa	Energia-eskaria murriztea, eta energia-eraginkortasuna hobetzea				
14. EKINTZA	Energia-auditoretzak egiten aurrera egitea, gutxienez 70 kW baino gehiagoko potentzia termikoa duten eraikin publiko guztietarako				
DESKRIBAPENA	<p>Energia-auditoretzen helburua da eraikin jakin baten energiari dagokion jokaerari buruzko informazio xehatua eskuratzea, eta eskaria murriztera, energia-eraginkortasuna hobetzerara eta energia-iturri konbentzionalen ordez energia-iturri berriztagarriak erabiltzera bideratutako neurriak definitzea.</p> <p>Dagoeneko 15 udal eraikinek dute indarrean energia-auditoretza bat; horietako zazpi ikastetxeak dira (Intxaurren Ikastola -Zarategi-, Jakintza ikastola -Erregezaintza-, Amara Berri -Morlans-, Arantzazuko Ama -Martutene-, Zuhaizti Ikastola – Ategorrieta-, Amara Berri -Ferrerias- eta Aitor Ikastola -Konkorrenea-); beste biren jarduera nagusia bulego-erabilera da (Ijenteako eraikina eta Goikoakoa); horiez gain, honako hauek dira indarreko auditoria duten gainerako eraikinak: Udaltzaingoarena, Suhiltzaileena, Herrerako HHE, Abegi Etxea, Ondarretako aterpetxea eta Aieteko Jauregia.</p> <p>Gainera, beste bederatzi ikastetxetan eta Kontxako kabinetan auditoretzak egiteko asmoa dago.</p> <p>4/2019 Legearen 13. artikulua ezartzen du 70 kW baino gehiagoko potentzia termikoa duten euskal herri administrazioen eraikinek energia-auditoretza izan beharko dutela (epemuga: 2021eko otsailak 21).</p> <p>Ekintza honen helburua da, lehenik eta behin errekerimendu hori betetzea eta, ondoren, aurrera jarraitzea gainerako eraikin eta ekipamenduetan ere energia-auditoretzak egiten, kontsumo handienekoak eta aurrezpen-aukera handienekoak lehenetsiz.</p>				
ARDURADUN NAGUSIA	OIZ – Ingurumen-osasun eta Jasangarritasun Zerbitzua [energia-eraginkortasunaren sekzioa]	BESTE ARDURADUN BAT			
EGIKARITZE-EPEA	2020-2022	LEHENTASUNA	Handia		
ZEIN ERAIKIN- TIPOLOGIATAN APLIKATZEN DEN	IKASTETXEAK	BULEGOAK.	KULTUR-ETX.	KIROL-INST.	BEST.
	x	x	x	x	x

GUTXI GORABEHERAKO KOSTUA	20.000-45.000 €
OHARRAK	

ENERGIA					
Programa	Energia-eskaria murriztea, eta energia-eraginkortasuna hobetzea				
15. EKINTZA	Berogailurako eta Etxeko Ur Berorako ekoizpen-ekipoak aldatzea, eta sistema eraginkorragoak edo beste energia-iturri batzuk erabiltzea, lehentasuna emanez aurrezpen-marjina handiagoa dagoen eraikinei.				
DESKRIBAPENA	<p>Udal bulegoetako energia-eskaria murriztea eta energia-eraginkortasuna hobetzea lehentasunezko gaia da Udalarentzat. Hain zuzen ere, 4/2019 Legeak ezartzen du euskal herri administrazioek, bakoitzak bere jardun-eremuan, eta irizpide orokor gisa, energia-kontsumoa % 60 murriztea lortu beharko dutela 2050erako, eta % 35, berriz, 2030erako.</p> <p>Neurri honekin, jarraitutasuna eman nahi zaio udal eraikin eta lokaletako berogailu-sistemen eta Etxeko Ur Beroaren sistemen errendimendua hobetzea lortzeko egiten ari den lanari, ekiporik zaharrenen eta eraginkortasun txikieneko ordez eskuragarri dauden teknologiarik onenak dituzten eraginkortasun handiko ekipo berriak jarrita.</p> <p>Zein eraikinetan esku hartu behar den erabakitzeko, hainbat irizpide hartuko da kontuan; lehentasuna emango zaie aurrezpen-marjina handiena duten eraikinei (energia-auditorien emaitzak aztertu).</p>				
ARDURADUN NAGUSIA	OIZ – Ingurumen-osasun eta Jasangarritasun Zerbitzua [energia-eraginkortasunaren sekzioa]	BESTE ARDURADUN BAT			
EGIKARITZE-EPEA	2020-2024		LEHENTASUNA	Handia	
ZEIN ERAIKIN-TIPOLOGIATAN APLIKATZEN DEN	IKASTETXEAK	BULEGOAK.	KULTUR-ETX.	KIROL-INST.	BEST.
	x	x	x	x	x
GUTXI GORABEHERAKO KOSTUA	>80.000 €				
OHARRAK					

ENERGIA			
Programa	Energia-eskaria murriztea, eta energia-eraginkortasuna hobetzea		
16. EKINTZA	Argindar-kontsumoa murrizteko jarduketak (argiztapena kontrolatzea, argiak aldatzea, etab.) kontsumo handiko ekipamenduetara zabaltzea (bulegoak, kultura etxeak, etab.)		
DESKRIBAPENA	<p>Ekipamenduetako argiztapenaren ondoriozko argindar-kontsumoa argiztapen-sistemak kontrolatzeko eta erregulatzeko sistemak hobetuta eta dauden argien ordez teknologia eraginkorragoak erabilia lortzen da batez ere.</p> <p>Neurri honekin, lortu nahi dena da azkeneko urteotan hainbat eraikin eta ekipamendutan (batez ere zahar-etxeetan, helduentzako eskoletan (HHE) eta ikastetxeetan) ezarri diren jarduketa horiek, pixkanaka, ekipamendu guztietara zabaltzea, lehenetasuna emanaz argindar-kontsumo handienak dituzten ekipamenduei.</p> <p>Erabilera txikiagoa duten edo teknologiak horren zaharkituta ez dituzten eraikinetan, pixkanaka egingo da aldaketa.</p> <p>Kontuan izanda jarduketa horiek eraikin bakoitzaren tipologiaren eta erabileraren arabekoak direla, egin beharreko jarduketak xehatuko ditugu jarraian:</p> <p>Argiztapenaren kontrola eta erregulazioa hobetzeko:</p> <ul style="list-style-type: none"> • Dauden argi-mailak aztertzea eta argiztapen artifiziala birdefinitzea. • Presentzia-sentsoreak, tenporizadoreak eta programagailuak jartzea eraikinetako komunetan, eskaileretan eta korridoreetan. • Argiak pizteko zelula fotosentikorra jartzea, argi naturala aprobetxatzeko. • Programatutako orduetan itzaltze automatikoa kudeatuko duten etengailu teletengailuak jartzea. • Eraikin osorako argiteria erregulatzeko sistema zentralizatua jartzea. • Eraikinaren kanpoko argiztapena kontrolatzeko erloju astronomikoa jartzea. • Bideragarria den kasuetan, udal eraikinen argiteria pizteko sektorizazioa hobetzea, batez ere, eskoletan, eskola orduetatik kanpo ikasgela eta korridoreetako argi guztiak martxan egotea saihesteko. <p>Argiak aldatzeari dagokionez, honako hauek izango dira jarduketak:</p> <ul style="list-style-type: none"> • Dauden argi-mailak aztertzea eta argiztapen artifiziala birdefinitzea. • Goritasun-bonbillen ordez LED bonbillak jartzea. • Bonbilla halogenoen ordez LED bonbillak jartzea. • Argi fluoreszenteen eta horien erreaktantzien ordez, LED hodiak jartzea. • Eraikinen kanpoaldeko argiterian, VM, VSAP eta halogenuroen ordez, LED fokuak jartzea. 		
ARDURADUN NAGUSIA	OIZ – Ingurumen-osasun eta <table border="1" style="display: inline-table; vertical-align: middle;"><tr><td>BESTE</td></tr><tr><td>ARDURADUN</td></tr></table>	BESTE	ARDURADUN
BESTE			
ARDURADUN			

	Jasangarritasun Zerbitzua [energia-eraginkortasunaren sekzioa]	BAT			
EGIKARITZE-EPEA	2020-2025tik aurrera	LEHENTASUNA		Handia	
ZEIN ERAIKIN-TIPOLOGIATAN APLIKATZEN DEN	IKASTETXEAK	BULEGOAK.	KULTUR-ETX.	KIROL-INST.	BEST.
	x	x	x	x	x
GUTXI GORABEHERAKO KOSTUA	45.000-80.000 €				
OHARRAK					

ENERGIA	
Programa	Energia-eskaria murriztea, eta energia-eraginkortasuna hobetzea
17. EKINTZA	Ikastetxetan, eskola-komunitate osoa energia-aurrezpenean inplikatzen aukera emango duten sentsibilizazio-ekintzekin, ekipamenduen energia-eraginkortasuna hobetzeko egiten ari den lanari jarraitutasuna ematea –ta lan hori indartzea
DESKRIBAPENA	<p>Udalaren titularitateko ikastetxeetan kontzentratu da azkeneko urteotan energiaren arloan egindako jarduketan zati handi bat (energiarekin lotutako jarduketetan egindako inbertsio osoaren % 65). Halaber, ikastetxe guztiek dituzte energia-auditoretzak –edo epe laburrean izango dituzte–, eraikin bakoitzean egin beharreko neurriak xehatzen dituztenak, eraikinon energia-jokaera hobetzeko eta erregai fosilekiko duten mendekotasuna murrizteko.</p> <p>2 eta 12 urte bitarteko haurrak hartzen dituzte ikastetxeok, eta duten hezkuntza-osagaiari esker, jarduketa horiek osatzeko hezkuntza-komunitate osoaren inplikazioa lortzeko lagungarriak izango diren eta kontsumo-ohituren aldaketan eragina izango duten sentsibilizazioko beste jarduketa batzuk egiteko ekipamendu aproposak dira, eta hori, gainera, beste eremu batzuetara irits daiteke.</p> <p>Zentzu horretan, Eskolako Agenda 21 ekimenaren barruan (gaur egun, Eskolako Agenda 2030) hiriko ikastetxeekin egiten ari den lanak helburu hori lortzen laguntzen du, inolako zalantzarik gabe.</p> <p>Hala ere, badaude energiaren arloan aztertu eta probatu litezkeen beste hezkuntza- eta sentsibilizazio-ekimen batzuk, Euronet 50/50 metodologia, esaterako.</p> <p>Metodologia hori 2009-2012 aldian egindako europar proiektu baten barruan garatu zen, eta Europar Batasuneko 13 herrialdeko 500 bat ikastetxetan ezarri da. Aplikatzen den metodologia lortutako energia-aurrezpenari pizgarri ekonomikoak ematean datza. Horretarako, konpromiso bat sinatzen da Udalaren (Udalak ordaintzen ditu fakturak) eta ekipamenduaren artean (kasu honetan, ikastetxeak); horrela, lortutako aurrezpen ekonomikoaren erdia itzultzeko konpromisoa hartzen du Udalak, eta jardunbide egoki sorta bat aplikatzera eta proiektua zuzentzera konprometitzen da ikastetxea. Horrekin guztiarekin, honako emaitzak lortu nahi dira:</p> <ul style="list-style-type: none"> • Energia-kontsumoa murriztea lortzea, eskolako komunitatearen jokaerak aldatuta eta ikastetxeetako energia-eraginkortasunari eusteko eta hori hobetzeko neurri txikiak hartuta. • Eskolako komunitateari berari paper garrantzitsua ematea energia aurrezteko ideiak eta neurriak proposa ditzan. • Energia-eraginkortasunari buruz sentsibilizatzea, eta neurrien aplikazioa proiektutik harago eramatea. • Instalazioetan beste proiektu, jarduera edo hobekuntza batzuk finantzatzea, energia-kontsumoan aurreztutako diruarekin.

ARDURADUN NAGUSIA	OIZ – Ingurumen-osasun eta Jasangarritasun Zerbitzua [energia-eraginkortasunaren sekzioa]		BESTE ARDURADUN BAT		
EGIKARITZE-EPEA	2021-2025		LEHENTASUNA	Ertaina	
ZEIN ERAIKIN-TIPOLOGIATAN APLIKATZEN DEN	IKASTETXEAK	BULEGOAK.	KULTUR-ETX.	KIROL-INST.	BEST.
	x				
GUTXI GORABEHERAKO KOSTUA	20.000-45.000 €				
OHARRAK	Ekintza hau Eskolako Agenda 2030 ekimenarekin koordinatuta egin beharko litzateke.				

ENERGIA					
Programa		Energia-eskaria murriztea, eta energia-eraginkortasuna hobetzea			
18. EKINTZA		Eraikin publikoetan langileek energia zentzuz kontsumitzea sustatzeko egindako jardunbide egokiak eta ekimenak arakatzea			
DESKRIBAPENA		<p>Eraikin eta ekipamenduetako energia-eskaria murriztea ez dago bakarrik hobekuntza tekniko eta teknologikoak egitearen esku, baizik eta baita eraikin horietan daudenen energia-erabileraren eta kontsumo-ohituren esku ere; kasu honetan, eraikinok egunean ordu luzez okupatzen dituzten langileen erabilera eta ohituren esku.</p> <p>Beraz, funtsezkoa da pertsona horiek beraien lan-orduetan energia zentzuz kontsumi dezaten, konfort-baldintzei uko egin behar izan gabe. Hain zuzen ere, Klima-aldaketaren inguruko Barne-planaren barruan egin den inkestan, udal langileen % 43k adierazi du bere lantokian energia dezente aurreztu litekeela berogailutan, eta % 31 argiztapenean.</p> <p>Hainbat lekutan, askotariko ekimenak eta proiektuak egin dira eraikin publikoetan, eta interesgarria litzateke horiek arakatzea eta aztertzea, horietakoren bat bideragarria edo, gutxienez, inspiratzailea balitz ere, Donostiako Udalean ekimenean bat garatzeko.</p> <p>Jarraian, arrakasta izan duten kasuen eta/edo jardunbide egokien iturri batzuk proposatzen dira, kontsultatzeko:</p> <p>http://euronet50-50max.eu/images/news/es/Technical_documents/EURONET_Edificios_p%C3%BAblicos_final_ESP_16042015.pdf</p> <p>https://www.covenantofmayors.eu/plans-and-actions/good-practices.html</p> <p>http://www.fundacionconama.org/fondo-documental/</p>			
ARDURADUN NAGUSIA	OIZ – Ingurumen-osasun eta Jasangarritasun Zerbitzua [energia-eraginkortasunaren sekzioa]	BESTE ARDURADUN BAT	Pertsonen Kudeaketako Zuzendaritza - Giza Baliabideak Antolatzeko eta Kudeatzeko Zerbitzua		
EGIKARITZE-EPEA	2021	LEHENTASUNA	Ertaina		
ZEIN ERAIKIN-TIPOLOGIATAN APLIKATZEN DEN	IKASTETXEAK	BULEGOAK.	KULTUR-ETX.	KIROL-INST.	BEST.
		x			x
GUTXI GORABEHERAKO KOSTUA	Sin coste				
OHARRAK					

ENERGIA						
Programa		Udal eraikin eta ekipamenduetan energia berriztagarriak ezartzea				
19. EKINTZA		Autokontsumoko instalazio fotovoltaikoak jartzeko estrategia bat diseinatzea, hiriko ekipamendu eta eraikin publikoek eskaintzen dituzten aukerei buruz egindako azterlanean oinarrituta				
DESKRIBAPENA		<p>4/2019 Legeari jarraiki, tokiko administrazioaren kontsumoaren % 32koa edo handiagoa izan behar da ekoizpen berriztagarria 2030erako; beraz, helburu hori betetzeko, funtsezko arloak dira sorkuntza berriztagarria eta auto-kontsumoa bultzatzea.</p> <p>15/2018 Errege Lege-dekretua onartuta –eguzkiaren zerga zeritzona indargabetzea ekarri zuen– bide positiboa ireki zuen, eta Udalak bide horri heldu dio hainbat ekipamendutan auto-kontsumoko sistemak jartzeko. Funtsezkotzat jotzen da norabide horretan lanean jarraitzea, modu koordinatuan eta ikuspegi estrategiko batekin.</p> <p>2020an abian jarritako instalazioekin, 673 kW-ko instalatutako potentziara iritsiko gara, Udalaren argindar-kontsumo osoaren % 3,44ko ekoizpen elektrikoarekin (ez dira kontuan hartzen organismo autonomoak, ezta Udal Kirol Patronatoa ere).</p> <p>Dagoeneko aztertu dira hirian dauden hainbat ekipamenduren azalera erabilgarriak; horietako batzuk Udalarenak dira, eta beste batzuk beste herri administrazio batzuenak:</p> <ul style="list-style-type: none"> • Udalarenak: frontoiak, kiroldegiak, Etxegintza, eskolak eta Hipodromoa. • Eusko Jaurlaritzarenak: eskolak, Osakidetzako anbulatorioak eta EKP • Añarbe: ur-biltegiak • San Markos Mankomunitatea: garai bateko zabortegia <p>Aztertutako jarduketa guztiak egitekotan lortuko litzatekeen potentzia fotovoltaikoaren estimazioa (12,3MW) eta horiek egitearen guztizko kostuarena (15,2M€) ere egin da. Horiek guztiak egikaritzuz gero, 2030erako finkatutako helburua gaindituko litzateke, eta 2050erako ezarritakora hurbilduko ginatke.</p> <p>Funtsezkotzat jotzen da norabide horretan lanean jarraitzea, modu koordinatuan eta ikuspegi estrategiko batekin. Anlisi hori abiapuntutzat hartuta, ekintza-plan xehatu bat landuko da, datozen urteetan egin beharreko jarduketak, kokalekuak, aurrekontua, egutegia eta beste hainbat alderdi programatzea ahalbideratuko duena.</p>				
ARDURADUN NAGUSIA		OIZ – Ingurumen-osasun eta Jasangarritasun Zerbitzua [energia-eraginkortasunaren sekzioa]	BESTE ARDURADUN BAT			
EGIKARITZE-EPEA		2021-2022	LEHENTASUNA		Handia	
ZEIN ERAIKIN-TIPOLOGIATAN APLIKATZEN DEN		IKASTETXEAK	BULEGOAK.	KULTUR-ETX.	KIROL-INST.	BEST.
		X	x	X	X	x
GUTXI GORABEHERAKO KOSTUA		20.000-45.000 €				

OHARRAK

6. HONDAKINEN ARLOKO EKINTZAK

HONDAKINAK	
Programa	Udal eraikin eta ekipamenduetan hondakinen prebentzioa, berrerabilpena eta kudeaketa egokia sustatzea
20. EKINTZA	Lantokietan hondakinen prebentzioa eta berrerabilpena modu aktiboan sustatzea, ekimen zehatzen edo lan-protokoloen bitartez.
DESKRIBAPENA	<p>Lantokian hondakinen prebentzioa sustatzea lehentasunezko kontua izaten jarraitzen du. Plan hau prestatzeko lanaren barruan egindako inkestaren emaitzek baieztatzen dute hobetzeko marjina dagoela lantokian sortzen diren hondakinen prebentzioaren arloan, batez ere behin erabili eta botatzeko edalontzien eta paperaren kasuan.</p> <p>Halaber, pentsa daiteke egon daitezkeela inkestan kontuan hartu ez ziren beste hondakin batzuk ere, plastikozko botilak esaterako, eta horien sorkuntza ere murriz liteke ekimen zehatzen bitartez. Botila berrerabilgarriak gero eta gehiago erabiltzen badira ere, eraikin batzuetako <i>vending</i> makinetan plastikozko botilak eskaintzen dira, eta horrek botilaratutako uraren kontsumoa bultzatzen du, iturriko uraren kaltetan.</p> <p>Hondakinen hierarkia-ordenari jarraituz, askotariko elementu eta materialen berrerabilpenari ere (banderatxoak, enarak, roll-upak, etab.) lehentasuna eman beharko litzaioke, batez ere, duten jardueragatik, era horretako elementu kopuru handia sortzen duten area edo sailetan.</p> <p>Bi gai horietan modu aktiboan eragiteko, beharrezkoak dira ekintza zehatzak. Prebentziozko ekintzen kasuan:</p> <ul style="list-style-type: none"> • Kafe-makinetako edalontziak kentzeko aukera aztertzea (bakarrik barne-erabilerakoak diren makinetan behintzat). • Ur-botilen kontsumoa aztertzea (<i>vending</i> makinaren enpresa hornitzaileak ematen dituen datuetatik abiatuta), eta horiek kentzeko edo horien ordez beste produktu batzuk eskaintzeko aukera baloratzea. • Paper-kontsumoa murriz dadin eragitea, inprimatze-guneetan mezu esplizituak jarrita (beharrezkoa baldin bada bakarrik inprimatzea, eta inprimagailuak alde bietatik inprimatzeko konfiguratzea). <p>Ekintzak indartzeko eta horiek neurri handiagoan onar daitezen lortzeko, garrantzitsua da ezagutzera ematea, zergatik egiten diren azaltzea eta, egokitzen joz gero, ordezko aukerak eskaintzea (katiluak, edalontziak, etab.).</p> <p>Materialen berrerabilpena sustatzeko ekintzei dagokienez, sail ezberdinekin partekatutako diren lan-prozedurak prestatuko dira, sail bakoitzaren behar zehatzetara egokitzeko.</p>

ARDURADUN NAGUSIA	OIZ - Ingurumen-osasuneko eta Jasangarritasuneko Zerbitzua [biodibertsitateko eta ingurumen-kalitateko sekzioa]		BESTE ARDURADUN BAT		
EGIKARITZE-EPEA	2020-2025		LEHENTASUNA	Handia	
ZEIN ERAIKIN-TIPOLOGIATAN APLIKATZEN DEN	IKASTETXEAK	BULEGOAK.	KULTUR-ETX.	KIROL-INST.	BEST.
	X	x	X	X	x
GUTXI GORABEHERAKO KOSTUA	Kosturik gabe				
OHARRAK					

HONDAKINAK					
Programa	Udal eraikin eta ekipamenduetan hondakinen prebentzioa, berrerabilpena eta kudeaketa egokia sustatzea				
21. EKINTZA	Udal eraikin eta ekipamenduetan sortzen diren hondakin-mota ezberdinak karakterizatzeko eta kuantifikatzeko azterlan bat egitea				
DESKRIBAPENA	<p>Neurri honekin, udal eraikin eta ekipamendu guztietan sortzen diren hondakinei buruzko ezagutza handiagoa izatea lortu nahi da, behar zehatzei hobeto zuzendu eta bideratuko zaien proposamen bat egiteko. Horretarako, azterlan xehatu bat egingo da, sortutako hondakin-kopuruei eta gaika bildutakoei (papera/kartoia, ontzi arinak, organikoa eta errefusa) buruzko informazio kuantitatiboa eskuratu ahal izateko.</p> <p>“Donostiako Udalaren lokaletako hondakinen gaikako bilketa hobetzea” lanean erabilitako irizpideetan eta egindako lanean oinarrituta, eraikin guztiak ordezkatzeko dituen lagin bat hartuko da, eta eraikin eta ekipamendu guztietara estrapolatuko dira emaitzak.</p> <p>Proiektu horretan, 23 eraikin aukeratu ziren, bi multzotan sailkatuta (jendearentzako irekita daudenak eta ez daudenak), eta hainbat aldagaien arabera karakterizatuta:</p> <ul style="list-style-type: none"> • Jendearentzako irekita daudenak: <ul style="list-style-type: none"> ○ Barne-officea ○ Barne-vendinga ○ Bulego-eremua ○ Tailerra edo biltegia • Jendearentzako irekita ez daudenak: <ul style="list-style-type: none"> ○ Sukaldea edo jangela ○ <i>Vendinga</i> <p>Nolanahi ere, eraikinen aukeraketak eta karakterizazioak indarrean jarraitzen duen edo ez eta, sailak birkokatu izanaren edo lokalen bat egokitu izanaren ondorioz, egokitzapenen bat egin beharra dagoen aztertuko da.</p>				
ARDURADUN NAGUSIA	OIZ - Ingurumen-osasuneko eta Jasangarritasuneko Zerbitzua [biodibertsitateko eta ingurumen-kalitateko sekzioa]	BESTE ARDURADUN BAT			
EGIKARITZE-EPEA	2022	LEHENTASUNA	Ertaina		
ZEIN ERAIKIN-TIPOLOGIATAN APLIKATZEN DEN	IKASTETXEAK	BULEGOAK.	KULTUR-ETX.	KIROL-INST.	BEST.
	X	x	X	X	x
GUTXI GORABEHERAKO KOSTUA	8.000-20.000 €				
OHARRAK					

RESIDUOS					
Programa	Udal eraikin eta ekipamenduetan hondakinen prebentzioa, berrerabilpena eta kudeaketa egokia sustatzea				
22. EKINTZA	Dauden zaborrontzien erabilera eta erabilgarritasunaren jarraipen sistematikoa egiteko eta behar berriak detektatzeko protokoloa diseinatzea				
DESKRIBAPENA	<p>“Donostiako Udalaren lokaletako hondakinen gaikako bilketa hobetzea” deritzon lanari esker, lokal bakoitzean sortutako hondakin-mota guztiak bereizteko aukera ematen duten zaborrontzien beharrak dimentsionatu ahal izan ziren, eta ontzi horiek lantokietan banatzeko proposamena egin.</p> <p>Zaborrontziak dimentsionatzeko lana eta horiek banatzeko proposamena une hartako (2017. urtea) sailen egituran eta erakundeen kokalekuan oinarrituta egin zirela. Lan-espazio berriak egokitzeak eta beste batzuei kokapen berria emateak kasu bakoitzerako beharrezko unitateak eguneratzeko beharra dakar, baita eskariei erantzuna ematekoa ere.</p> <p>Horregatik, interesgarritzat jotzen da aldizka (hiruzpalau urtean behin) zaborrontzien zuzkidurari eta kokalekuari dagokionez proposatutako irtenbideek eraginkorrak izaten jarraitzen duten eta lantoki bakoitzeko beharrei erantzuten dieten edo, aitzitik, sortutako hondakinen gaikako bilketa-tasa handitze aldera, hobekuntzarik egin beharra dagoen aztertzea.</p> <p>Zeregin hori nolabait sinplifikatzeko eta sistematizatzeko helburuz, protokolo bat prestatuko da (eraikin eta ekipamenduetara bidaliko den galdetegi bat), aldizkakotasun jakin batekin (3-4 urte) aplikatuko dena. Behar berriak detektatzea eta dagozkion egokitzapenak egitea ahalbideratuko dute protokolo horretatik ateratako ondorioek eta hondakinak karakterizatzeko azterlanetatik ateratakoek.</p>				
ARDURADUN NAGUSIA	OIZ - Ingurumen-osasuneko eta Jasangarritasuneko Zerbitzua [biodibertsitateko eta ingurumen-kalitateko sekzioa]	BESTE ARDURADUN BAT			
EGIKARITZE-EPEA	2021-2025tik aurrera	LEHENTASUNA	Handia		
ZEIN ERAIKIN-TIPOLOGIATAN APLIKATZEN DEN	IKASTETXEAK	BULEGOAK.	KULTUR-ETX.	KIROL-INST.	BEST.
	x	x	x	x	x
GUTXI GORABEHERAKO KOSTUA	Kosturik gabe				
OHARRAK					

7. IZAERA ZEHARKAKOA DUTEN EKINTZAK

ZEHARKAKOAK			
Programa	KABP koordinatzea, dinamizatzea eta sozializatzea		
23. EKINTZA	Energia-jasangarritasunerako batzorde bat abian jartzea eta dinamizatzea, zeinaren barruan KABPren jarraipena egin dadin		
DESKRIBAPENA	<p>4/2019 Legearen 9. artikulua ezartzen du derrigorrezkoa dela Energia-jasangarritasunerako Batzorde bat sortzea; ondorengo eginkizunak esleituko zaizkio batzorde horri:</p> <p>a) 11. artikulua aipatzen duen inbentarioaren onespena proposatzea.</p> <p>b) Legea betetze aldera hartutako neurrien garapena gainbegiratzea eta bermatzea, baita legean ezartzen diren helburuak betetzen direla ere.</p> <p>c) Aldizka, energia-jarduketako bere planaren egoeraren eta garapenaren berri ematea.</p> <p>Egiturak ez bikoizteko eta udal plan eta politika publikoen kudeaketa eraginkorra sustatzeko helburuz, Batzorde horren eginkizunen artean sartuko da KABPren jarraipena.</p>		
ARDURADUN NAGUSIA	OIZ - Ingurumen-osasuneko eta Jasangarritasuneko Zerbitzua	BESTE ARDURADUN BAT	
EGIKARITZE-EPEA	2020-2025tik aurrera	LEHENTASUNA	Handia
GUTXI GORABEHERAKO KOSTUA	Kosturik gabe		
OHARRAK			

ZEHARKAKOAK			
Programa	KABP koordinatzea, dinamizatzea eta sozializatzea		
24. EKINTZA	Udal langileei zuzenduta, klima-aldaketari buruzko trebakuntza- eta sentsibilizazio-plan bat diseinatzea eta abian jartzea		
DESKRIBAPENA	<p>4/2019 Legeak, 27. artikuluan, udal langileak energia-aurrezpena eta -eraginkortasuna areagotzeko teknikei buruz trebatzea jasotzen du.</p> <p>Bestalde, Klima-aldaketara Egokitzeko hiriko Planak ere jasotzen du beharrezkoa dela klima-aldaketara egokitzeari buruzko Udaleko sail ezberdinei zuzendutako trebakuntza-plan bat antolatzea eta gauzatzea.</p> <p>Testuinguru horretan, eta Klima-aldaketaren inguruko Barne-planaren irismena kontuan hartuta –mugikortasunaren, energiaren eta hondakinen arloak lantzen ditu–, beharrezkotzat jotzen da errekerimendu horiei guztiei erantzungo dien eta aipatutako alor guztiak landuko dituen klima-aldaketari buruzko trebakuntza-plan integral bat diseinatzea.</p> <p>Lau modulutan antolatuko da trebakuntza-plana:</p> <ol style="list-style-type: none"> 1. ENERGIA: Energia-aurrezpena eta -eraginkortasuna lantokian 2. MUGIKORTASUNA: Mugikortasun-moduen eta joan-etorriekin lotutako karbono-aztarnaren eragina. 3. HONDAKINAK: Hondakinen prebentzioa, berrerabilpena eta kudeaketaren hobekuntza lantokian. 4. KLIMA-ALDAKETARA EGOKITZEA: Udal kudeaketan klima-aldaketara egokitzeko irizpideak txertatzea. <p>Hori guztia osatzeko, udal langileak sentsibilizatzeko hainbat ekintza egingo da, ingurumenarekiko errespetuzkoagoak diren eta klima-aldaketan eragin txikiagoa duten ohiturak sustatzeko. Adibidez, mugikortasunaren arloarekin lotuta gauza litezkeen bi ekintza proposatzen dira jarraian:</p> <ul style="list-style-type: none"> • Udal ibilgailuak esleitzeko aplikazioan aukeratutako joan-etorrietarako moduarekin lotutako emisioei buruzko informazioa txertatzea. • Nolabaiteko pizgarriren batekin (bizikletaren mantenurako bonuak, "bonu-denda" zozketak...), lantokira oinez, bizikletaz edo garraio publikoz joaten diren pertsonak saritzea. 		
ARDURADUN NAGUSIA	OIZ - Ingurumen-osasuneko eta Jasangarritasuneko Zerbitzua	BESTE ARDURADUN BAT	Pertsonen Kudeaketako Zuzendaritza - Giza Baliabideak Antolatzeko eta Kudeatzeko Zerbitzua
EGIKARITZE-EPEA	2020-2025tik aurrera	LEHENTASUNA	Handia
GUTXI GORABEHERAKO KOSTUA	Kosturik gabe		
OHARRAK			

ZEHARKAKOAK		
Programa	KABP koordinatzea, dinamizatzea eta sozializatzea	
25. EKINTZA	KABPren barruan ezarritako neurriak ezagutzera ematea, biurteko Jarraipen-txostenaren bitartez	
DESKRIBAPENA	<p>Aurreko ekintzaren planteamenduarekin jarraituz, neurri honekin lortu nahi dena da erantzun integrala ematea 4/2019 Legeak hartutako neurriak ezagutzera emateari (bi urtean behin jarraipen-txosten bat argitaratzea) eta KABPren kudeaketari eta aurrerapenen komunikazioari buruz jasotzen dituen errekerimenduei dagokienez.</p> <p>4/2019 Legeak ezartzen du euskal herri administrazio bakoitzak aditzera eman beharko duela energia-aurrezpena eta -eraginkortasuna areagotzeko zer neurri hartu duen, energia-jarduketan planak barne.</p> <p>Txosten horri mugikortasunari eta hondakinei buruzko berariazko beste bi kapitulu gehitzea proposatzen da, eta KABPren Jarraipen-txosten gisa balio izatea.</p> <p>Txosten horri, gainera, komunikazio-osagai bat ematea proposatzen da, langileak sentsibilizatzeko eta kontzientziazteko zeregina erraztuko duena. Horretarako, hainbat adierazle kalkulatu eta ezagutaraziko da (informazioaren eskuragarritasunaren arabera baloratu beharko da):</p> <p>ENERGIA:</p> <ul style="list-style-type: none"> • Energia-kontsumo osoa (kWh) eta langile bakoitzeko kontsumoa (kWh/lang.) • Argindar-kontsumo osoa (kWh) eta langile bakoitzeko kontsumoa (kWh/lang.) • Gas-kontsumo osoa (kWh) eta langile bakoitzeko kontsumoa (kWh/lang.) • Beste erregai batzuen kontsumo osoa (kWh) eta langile bakoitzeko kontsumoa (kWh/lang.) <p>(informazioaren eskuragarritasunaren arabera, eraikin bakoitzeko ere eman litezke datu horiek)</p> <p>BEG EMISIOAK:</p> <ul style="list-style-type: none"> • Energia-kontsumoarekin lotutako BEG emisioak (tCO_{2e}) eta langile bakoitzeko emisioak (tCO_{2e}/lang.) • Kudeaketak egiteko mugikortasunarekin lotutako mugikortasun-aztarna (tCO_{2e}) eta langile bakoitzekoa (tCO_{2e}/lang.) <p>Beste adierazle batzuen zabalkundea egitea ere interesgarria izango litzateke, baina horretarako beharrezkoa izango litzateke udal langileei beste inkesta bat egitea, eta maiztasun handiagoz kalkulatu ahal izango liriteke; etxetik lantokirako mugikortasunarekin lotutako karbono-aztarnarekin lotutako adierazleaz ari gara, hain zuzen ere.</p> <p>Nolanahi ere, eta informatze aldera, erabilgarria izango litzateke garraio-modu bakoitzaren egindako kilometro bakoitzeko emisioen balioa eskaintzea, joan-etorrietarako ohiturak aldatzea bultzatzeko.</p> <p>Azkenik, sortutako hondakin-kopuruarekin lotutako adierazleak kalkulatzeko informazioaren eskuragarritasuna udal eraikin eta ekipamenduetan sortzen diren hondakin-mota ezberdinen karakterizazioaren eta kuantifikazioaren (22. ekintza) mende egongo da.</p>	
ARDURADUN NAGUSIA	OIZ - Ingurumen-osasuneko eta	BESTE

	Jasangarritasuneko Zerbitzua	ARDURADUN BAT	
EGIKARITZE-EPEA	2021-2025 (bi urtean behin)	LEHENTASUNA	Handia
GUTXI GORABEHERAKO KOSTUA	Kosturik gabe		
OHARRAK			